

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, IRUÑA OKAKO UDALAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2017.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen joan den abenduaren 20an Iruña Okako Udalaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren fiskalizazio txostena, 2017ko ekitaldiari dagokiona.

2017ko ekitaldiko urteko kontuei dagokienez, aldeko iritzia plazaratu du eta kontularitzako zenbait doiketa azaleratu dira, horiek erregistratzeak Diruzaintza Geldikina 127 mila euroan gehitzea eragingo lukeena; berebat, Kontu Orokorrean ez da kontingentzia bati buruzko informaziorik jaso.

HKEEk fiskalizazio-gai izan den Kontu Orokorrak erakusten duen finantza-egoera aztertu du eta ondorioztatu du eragiketa arruntek sortutako aurrezkia nahikoa izan dela jasotako diru-laguntzekin batera, hirurtekoko inbertsioak finantzatu ahal izateko, zorpetze-bidea baliatu beharrik izan gabe eta Geldikinari hasierako mailetan eutsiz.

Honezaz guztiaz gain, Udalaren Kontu-hartzaitzak jaulkitako txostenari jarraikiz, 2017an bete dira aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasun helburuak eta gastuaren araua.

Udalak zuzentasunez bete du 2017ko ekitaldian ekonomia-finantza jarduera arautzen duen lege arautegia, nahiz energia elektrikoaren hornidura zuzenean kontratatu zen.